



# Izagirre anaiek estreinatu dute Goierriko sagardo berria

Goierriko txotx garaia



Zerain

Gizartea

Goierriko zazpi sagardotegiek gaur zabaldu dute, ofizialki, txotxeko denboraldia. Izagirre anaiek izan dira irekierako gonbidatu nagusiak. Aurtengoa "gorputz handiko sagardoa" izango dela diote.

2019 / 01 / 17

Goierriko Hitza

"Hau da Goierriko sagardo berria!" esanez zabaldu dute Izagirre anaiek Goierriko txotx garaia. Eskualdeko zazpi sagardotegietako kideak bildu dira gaur Zeraingo Oiharten. Aurtengoa "gorputz handiko sagardoa" izango dela aurreratu du Haritz Eguren Oiharte sagardotegiko arduradunak. Udaberri bustia izan zela gogorarazi du, eta ondorioz, erleek ezin izan zutela polinizazioa behar bezala egin; hori dela eta, "fruta

gogorarazi du, eta ondorioz, erleek ezin izan zutela polinizazioa behar bezala egin, hori dela eta, "fruta gutxi" etorri dela dio, baina dagoena "kalitatezkoa" dela.

Gorka eta Ion Izagirre izan dira aurten lehendabiziko txotxa probatu dutenak. Sagardotegietan "betidanik" ibili direla esan du Ionek, eta "tarteka trago batzuk" hartzen dituztela, nahiz eta "gehiegi ez komeni". Sagardotegietan "familiako tratua" izaten dela azpimarratu dute eta "familiarekin, lanekoekin edo kuadrillan etorri, giro polita" izaten dela.




Maiatzera arte egongo da Goierriko zazpi sagardotegietan txotxetik edateko aukera, nahiz eta gehienek urte osoan zabalik izaten duten jatetxea. Niko Osinalde Goiturreko zuzendariak, sagardotegi horiek "Euskadi Gastronomika klubeko kideak" direla gogorarazi du, eta horrek "kalitatezko sagardotegiak diren bermea" ematen duela.

Goierriko sagardotegiak:

- Aulia (Legorreta)
- Etxe-zuri (Olaberria)
- Oiharte (Zerain)
- Olagi (Altzaga)
- Otatza (Zerain)
- Txismista (Ordizia)
- Urbitarte (Ataun)

« Urtarrila 2019 ▾ »

| AL. | AR. | AZ. | OG. | OL. | LR. | IG. |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 |
| 7 | 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 |
| 14 | 15 | 16 | **17** | **18** | **19** | **20** |

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 21 | 22 | 23 | 24 | 25 | 26 | 27 |
| 28 | 29 | 30 | 31 | | | |
| | | | | | | |

## Komunitatea

Tartalo Etxe kultur elkartea

**Euskadiko Mus Txapelketa**

2019-01-21

---

Zaldibiako herri ataria

**Azken ostirala dela eta biltzeko deia**

2019-01-20

---

Ordizia rugby elkartea

**emaitzak URTARRILA 19**

2019-01-20

## Irakurrienak






Beasain

Kirola

## Sarah Ugarte eta Ander Lazkano izan dira Garingo Mendi Lasterketako garaileak



Lazkao

Kirola

## «Bi aldiz pentsatu gabe erabaki nuen uztea, eta ez dut batere damurik»



Beasain

Gizartea

**Goierriko irakasleek Trans-formatzen jardunaldia egin dute Beasainen**

Cookies
Pribatutasun politika

Laguntzaileak